

IGNACIO M.^a ETXAIDEREN MENDEURRENA

Donostia, 1984-XI-30

Ana M.^a Echaide

Beharrezkoa deritzat esatea zein pozik hartu nuen Euskaltzaindiak orain hilabete bat edo, egin zidan mandatua: gure aita izan zenaren oroimen bat edo beste agertzea; oroimen txiki, familia girokoak batez ere, giro honetan ezagutu bait nuen nik aita, eta beraren zahartzaroan gehienik. Era honetaz zerbait egin ba-dezaket hainbeste maite izan nuen eta oraindik hainbeste maite dudan aitaren alde, eskerrak Euskaltzaindia, eman didazun mandatuagatik.

Ez ditut hemen aipatu nahi aitari zor dizkiotan gauza garrantzitsuenak: bizitza —hamargarrena naiz senideen artean—, kristau fedea, heziketa —batez ere nire kasuan ama falta zitzaidalarik— etabar; baizik eta beraren izakera sendo eta xamurraren bidez hezurmuinetan sartu zizkidan ohitura eta zaletasun batzuk.

Ez zen gauza erreza, arratsaldean etxeratzen nintzalarik, aita zereginik gabe aurkitzea, zahartzaroan ere ez. Bazuen beti zerbait esku artean, eta zeregin bakoitza bere unean. Bazkalondoan, lokuluxka txiki bat, ordu eta erdi edo ordu pare batetan estudiatu, etxeko kontuak eraman, entxufe bat edo plantxa edo beste etxeko tresna bat ondatuta ba-zegoen konpondu; eta merendatu ondoan zerbait irakurri —ingelesez edo frantsesez askotan ohitura ez galtzearren—; edota neguko egun hotz edo euritsu askotan, kanpora ezin atera izan ba-zuen paseotxo bat egitera, beraren makilak hartu eta despatxoko ixkin batetik, ondoan genduen salaren beste ixkineraino, alde batetik bestera zebilen metro pila batzuk osatu arte.

Beraren pentsamoldean denbora galtzeko lekurik ez zegoen. Eta lan egin ere, benetan egiten zuen. Gogoan daukat oraindik norbaitek esan zidana aitaren matematika-liburu bat ikusita, orrialdeen ixkiñak bere eskuz notaz beteak zituen. “Hau da, hau, benetan estudiatzeko era. Ez gaisetikan ikusi eta orria pasatzen duenarena”.

Musika zen beraren zaletasun haundienetakoa. Zazpi urteko neska koskorra nintzan, igande goiz batean Donostiako Orkestra Munizipalak, Ramón Usandizagaren zuzendaritzapean, eman zuen kontzertu batetara eraman ninduean. Zoraturik gelditu nintzen eta musika estudiatu nahi nuela esan nion.

Geroztik nere musika zaletasuna haunditzen saiatu zen. Zenbat aldiz piano ondora hurbiltzen zitzaidan eta nik tankerarik gabe jotzen nuena, berak zentzu berriz betetzen erakutsi zidan. Gauero, afalondoan, disko bat entzuteko ohitura zuen. Diskoen bildumaren zerrenda egina zuen eta orden hartan ipintzen zituen. Baina noiz ta behin tranpatxo bat ere egiten zuen, neri ezer esan gabe, bere gustokoak zituen musikaegileak entzutearren: Beethoven, Strauss, Grieg, Wagner, eta euskaldunen artean Arriaga eta Usandizaga. Beraren ondoan ikasi nuen musika ulertzen.

Mendizalea zen ere. Bihotzetik gaisotu arte asko ibilia. Nik 6 urtetan lagundu nuen beraren ibilaldietan; 6 urte nituela eraman ninduen Igaratzara. Gero berarekin egin nituen Gipuzkoako tontor aunitz: Biandiz, Uzturre, Adarra, Ernio, Txindoki, Izarraitz etabar. Tontorrera iritxitakoan, nik urte asko igaro arte entenditu ez nuen grina zeukan: bistan zeuden mendi, herri edo herrixka, bide edo ibai guztiei antz eman behar zien. Horretan ere seme alaba bat baino gehiago atera gara beraren grina berberarekin.

Ez da izan neretzat gauza erreza gure aitaren eguneroko ohituren artean, bat edo beste nabari araztea. Gauza arruntak deritzaizkit, garrantzitsuak badira ere gauza arruntak gizonaren bizitzan. Baina, gehiago luzatu ez nahian, bukatzeko, agertu nahi nuke beste xehetasun bat. Badakizue, noski, aitak, zahartzaroan, anka moztu ziotenetik, taxiak asko erabiltzen zituela kaleratzeko. Askotan laguntzen nuen nik ateraldi horietan. Behin, taxia utzitakoan, aitak taxistari, ohitura zuen bezela, eskerrak eman zizkionean, honek galdetu egin zion zergatik ematen zizkion eskerrak bere lana baizik ez bait zuen egin. Eta aitak erantzun zion, egunero jende askoren alde eskertsu zegoela hainbeste lan —eginbeharrezkoak edo ez— egiten zituztelako bere alde. Batzutan, bere esker ona agertzea maite zuen erregalutxo baten bidez, norbaitek fabore bat edo lan berezi bat egiten zionean.

Zihur nago, ba, orain, goitik eskertsu gure begira dagoela; eta nik, beraren asmoaz eta beraren hitzez jabetuz, esan nahi dizuet: Eskerrik asko Euskaltzaindia, egin didazun omenaldiagatik. Jainkoak bedeinka beza Euskaltzaindia eta euskaltzainak eta hor zareten lagun guztiak zuen esker onagatik!